


LEZO HERRI ESKOLAKO

2023-24

IKASTURTEKO GIDA



AURKIBIDEA

Hitzaurrea	3
Eskolako kontaktuak	4
Familia eta eskolaren arteko komunikazioa	4
Ikasturteko egutegia	5
Irakasleak	6
Tutoreen banaketa	7
Sarrera-irteera ordutegia	8
Eskolako proiektuak	9
Euskara sustatzeko ekintzak	9
Arauak eta funtzionamendu oharrak	10
Zerbitzuak	12
Jangela	12
Garraioa	14
Haur txokoa	14
Material kuota	15
Eskola kirola	16

HITZAURREA

Familia agurgarriak:

Lehenengo eta behin, gida honen bitartez, Lezo Herri Eskola osatzen dugunok gure agurrik beroena luzatu nahi dizuegu.

Gida honetan, ikasturtean zehar baliagarria izango zaizuen informazioa zabaldu nahi dizuegu.

Lezo Eskola publikoaren zeregina heziketa euskalduna, integrala, eraikitzailea, kritikoa eta akonfesionala ematea da.

Lezo Herri Eskolak:

- Elkarbizitzarako baloreak transmititzen ditu.
- Aniztasuna kontuan hartuz, guztientzat aukera berberak eskaintzen ditu.
- Oinarrizko helburuak bermatzeaz gain, ikasle bakoitzaren gaitasunak garatzen ditu.
- Hauren jakin-mina suspertzen ahalegintzen da.
- Euskal kultura eta euskararen erabilera sustatzen ditu.
- Komunikazio egokiaren bidez eskola-komunitate guztiarekin elkarlanean aritzen da.
- Ikasleak gizarteratze egokirako prestatzen ditu, herrian eta mundu zabalean murgiltzeko aukera izan dezaten.
- Heziketa osasuntsuaren oinarriak bultzatzen ditu.

ESKOLAKO KONTAKTUAK

Telefonoa: 943 514804

Idazkaritzako ordutegia:

Goizez 9:00etatik 13:30era (ostiraletan 12:30ak arte)

Arratsaldez 15:00atik 16:30era.

E-postak:

Idazkaritza: info@lezoherrieskola.eus

Guraso Elkartea: hezikuntza@gmail.com

Eskola kirola: eskolakirola@lezo.net, Nora 688772057

Gainontzeko mezuak INIKA bidez (tutore eta jangela)

FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

Familia eta eskolaren arteko komunikazioa Inika aplikazioaren bidez egiten da. Inikara sartzeko bi bide dituzue: eskolako web orritik sar daiteke edo mugikorreko aplikaziotik.

Inikako erabiltzailea eta pasahitza ongi gorde mesedez.

Abisuak emateko edota premiazko oharak azaltzeko, Inika bidez edo telefonoz egin dezakezue. Kontuan hartu une oro irakasleak ikasleekin daudela, beraz, **telefonoz komunikatzeko zailtasunak izan ditzakezue**

2023/24 IKASTURTEKO EGUTEGIA

EGUTEGIA 2023-24

IRAILA

			1	2	3
4	5	6	7	8	9
11	12	13	14	15	16
18	19	20	21	22	23
25	26	27	28	29	30

URRIA

					1
2	3	4	5	6	7
9	10	11	12	13	14
16	17	18	19	20	21
23	24	25	26	27	28
30	31				

AZAROA

		1	2	3	4
6	7	8	9	10	11
13	14	15	16	17	18
20	21	22	23	24	25
27	28	29	30		

ABENDUA

				1	2
4	5	6	7	8	9
11	12	13	14	15	16
18	19	20	21	22	23
25	26	27	28	29	30

URTARRILA

1	2	3	4	5	6
8	9	10	11	12	13
15	16	17	18	19	20
22	23	24	25	26	27
29	30	31			

OTSAILA

			1	2	3
5	6	7	8	9	10
12	13	14	15	16	17
19	20	21	22	23	24
26	27	28	29		

MARTXOA

				1	2
4	5	6	7	8	9
11	12	13	14	15	16
18	19	20	21	22	23
25	26	27	28	29	30

APIRILA

1	2	3	4	5	6
8	9	10	11	12	13
15	16	17	18	19	20
22	23	24	25	26	27
29	30				

MAIATZA

		1	2	3	4
6	7	8	9	10	11
13	14	15	16	17	18
20	21	22	23	24	25
27	28	29	30	31	

EKAINA

				1	2
3	4	5	6	7	8
10	11	12	13	14	15
17	18	19	20	21	22
24	25	26	27	28	29

IRAKASLEAK

ZUZENDARITZA TALDEA

ZUZENDARIA	Olatz Aldabe
IKASKETABURUA	Zuhatz Agirre
IDAZKARIA	Iñaki Hernandez
JANGELA	Ana Da Silva

LAGUNTZA TALDEA

AHOLKULARIA	Elixabete Larrea
ORTZADAR GELA PT ALE	Esti Elias Maidier Irigoien, Oihane Burguete, Ane Antoranz
HEZITZAILEAK	Ainara Narciso, Idurre Urbistondo, Nagore Lizarralde, Oihana Gurrutxaga, Edurne Aizpuru, Aitor Zabaleta

ESPEZIALISTAK

MUSIKA	Ane Goikoetxea
INGELESA	Laura Hernandez, Miren Berasategi, Oihana Lasarte
GORPUTZ HEZKUNTZA	Iñigo Martinez, Txema Ibarzabal, Alex Ibañez

TUTORETZEN BANAKETA

HAUR HEZKUNTZA

	A	B	C
HH2	Ainhoa Lujanbio/ Idoia Fraile	Nerea Zabalegi	(Laguntza) Itziar Bengoetxea
HH3	Kris Lozano	Josebe Solana	
HH4	Itziar Monsalvo/ Ane Berasarte	Kristina Gago/ Ana Rubio	
HH5	Rosa Pérez/ Ahinitze Altuna	Joseba Juanikorena/ Maialen Berazadi	Idurre Mitxelena

LEHEN HEZKUNTZA

	A	B	C
LH1	Aloña Zarketa	Rafa Herrero	
LH2	June Solis	Naiara Alvarez	
LH3	Nerea Azurmendi/ Ainara López	Itziar Etxarte	
LH4	Irune Puy	Itxaso Briz/ Zuriñe de Olazabal	
LH5	Agurtzane Arrambide	Eider Aldabe	
LH6	Asun Alonso	Itsaso Bergareche	Jaione Mendia
ORTZADAR	Esti Elias		

SARRERA-IRTEERA ORDUTEGIAK

GOIZEKO JARDUNALDIA

	SARRERA	IRTEERA	JANGELAKO IRTEERA
HH2	09:10/09:50	12:20	14:00 eta 15:00
HH3	09:00	12:25	14:00 eta 15:00
HH4-5	09:00	13:00	15:00
LH	09:00	13:00	15:00

GOIZ ETA ARRATSALDEKO JARDUNALDIA

	SARRERA GOIZEZ	IRTEERA GOIZEZ	SARRERA ARRATSALDEZ	IRTEERA ARRATSALDEZ
HH2	09:10/09:50	12:20	15:00	16:20
HH3	09:00	12:25	15:00	16:25
HH4-5	09:00	12:30	15:00	16:30
LH	09:00	12:30	15:00	16:30

ESKOLAKO PROIEKTUAK

- **IKKI** (ikasi kooperatzen, kooperatuz ikasi) proiektuari jarraipena emango diogu, talde lana sustatuz.
- **50/50** proiektuaren barruan eskolan energia aurrezten saiatuko gara, udaletxearekin elkarlanean.
- **IRRATIA:** Ostegunetan irratia saioa egingo da zuzenean eskolan. Ondoren, web orrian entzungai egongo delarik.

www.lezoherrieskola.eus

- **BERTSOLARITZA:** 4. eta 5. mailako ikasleek hamabostean behin bertsolaritza saioa izango dute Ander Lizarralderekin
- **HIPI:** Atzeritik nahiz beste erkidego batetik etorri berriak diren ikasleentzako hizkuntza indartzeko programa.

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZAK

- **EUSKARA TALAIA:** Eskola orduetan nahiz familia giroan, euskararen erabilera sustatzeko ekintza ugari antolatzen ditugu ikasturtean zehar.
- **IRRATIA:** Ahozotasuna eta entzumen aktiboa lantzen ditugu irratiaaren bitartez.
- **ANTZERKIA:** Lehen Hezkuntzako 3. mailak eta 6. Mailako ikasleek Antzerki tailerrean parte hartzen dute, ondoren eskolako beste ikasleei aurkeztuz.
- **BERTSOLARITZA:** Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailek “Ni ere Bertsolari” proiektuan parte hartzen dute. Ikasturte bukaeran emanaldia egiten da.

ARAUAK ETA FUNTZIONAMENDU OHARRAK

Helbide, telefono zenbaki edota kontu korronteen aldaketak

Aldaketak egongo balira info@lezoherrieskola.eus edo idazkaritza@lezoherrieskola.eus helbidera idatzi edota 943 514804 telefonora deitu. Datuak eguneratuak izatea beharrezkoa da funtzionamendu onerako.

Autoak

Haurra ekarri edo eramatera autoz hurbiltzen zareten gurasoei eskatzen dizuegu:

- Trafiko arauak behar bezala betetzea. Arauak betetzen ez baditugu haurrak arriskuan jartzen ditugu.
- Leku egokietan aparkatzea, inoiz ez elbarrituentzako aparkalekuetan edo espaloi gainetan.

Gaixotasunen aurrean

Haurra gaixorik badago, etxean gelditu behar du **ondo sendatu arte**. Gaixotasun luzea edo kutsakorra denean, tutoreari abisatu. Ikasleak botikarik hartu behar izango balu, **ezinbestekoa da sendagilearen agiria**, eskolako langileok ezin dugu inolako botikarik eman sendagilearen agiririk gabe. Halere, irakaslea ez dago sendagaia ematera behartua.

Alergiak: aldaketak gertatzen badira, hau da, alergia gainditzea, intolerantzia berri bat edo alergia berri bat agertzea... ikastetxean horren berri eman.

Zorriak

Zorriak oso kutsakorrak direnez, ikasleen burua maiz begiratzea eskatzen dugu, eta ikasleak zorririk edo bartzarik izango balu, burua behar bezala garbitzea. Zorriekin bukatzeko zuen partaidetza ezinbestekoa da.

Ikastetxetik atera ahal izateko baimenak

Ikasleak ikastetxetik atera beharko balu (medikura joan beharra, dokumentazio ofiziala egin beharra, ...) gurasoek tutoreei jakinaraziko diote.

Irteera eskola ordutan denean, ikaslearen bila arduradun heldu batek etorri beharko du.

Banaketak eta dibortzioak

Familian aldaketaren bat baldin badago, idazkaritzara jotzea eskatzen dizuegu, ikastetxea jakinaren gainean egon dadin. Kasu horietan jarraitzen den protokoloaren berri emango dizuegu.

Telefono mugikorrak

Mugikorra eskolara EZ ekartzea aholkatzen dugu. Ikasleren batek ekartzea ezinbestekoa izango balu, aldez aurretik tutorearekin hitz egin. Mugikorra haurren ardurapean geratuko da.

Galdutako arropa

Jantziak ikaslearen izenez markatzea eskatzen dizuegu, arropa gal ez dadin. Dena dela, galtzen dena jasotzen joango gara eta hiruhilekoaren amaiera arte gordeko dugu. Epe hori amaitu eta jabea agertzen ez bada, jantzi horiek GKE bati emango dizkiogu.

Hamaiketakoa

Erabat debekatua dago eskolara litxarkeriak ekartzea. Eskolak janari osasungarria bultzatzen du eta ikasleei fruta, zerealak... ekartzea eskatzen diegu. Era berean, hondakinak murrizteko, hamaiketakoa ekartzeko berrerabiltzeko bilgarriak ekartzea eskatzen dugu.

Urtebetetzeak

Litxarkeriak eskolara ekartzea debekatua dagoenez, urtebetetzeak ospatzeko, ahalik eta janari osasuntsuena ekartzea gomendatzen da. Hainbat gelatan zenbait elikagairi intolerantzia edo alergia dieten ikasleak egon daitezke. Kasu horietan nola jokatu, tutoreak esango dizue.

Urtebetetze ospakizunetara gelako ikasle guztiak gonbidatuak izaten ez direnez, ikasle batzuk baztertuak ez sentitzeko, **gonbidapena eskolan egitea erabat debekatua dago.**

ZERBITZUAK: JANGELA

Eskolan sukaldea dugu eta bertan bazkaria prestatzen da. Hezkuntza Sailak izendatutako AUSOLAN enpresak menuak diseinatu eta elikagaiak kudeatzen ditu.

Menu mota ezberdinak eskaintzen dira:

1. Oinarrizko menua
2. Txerrikirik gabeko menua
3. Arrautza-esneki-barazkien menua
4. Arrautza-esneki-barazki eta arrainen menua
5. Nutrizio-premia berezietarako dietak: **intolerantzia**, **alergia edota** dieta bidezko tratamendu espezifikoak duten patologietarako dietak. Kasu hauetan honako agiriak aurkeztu behar dira:
 - Espezialista mediku-txosten ofiziala. (mediku kolegiatua)
 - Elikagaia jenez gero, nola jokatu jakiteko protokoloa.
 - Komentsalaren fitxa (eskolan sinatzekoa)

Menuak eskolaren web orrialdean (www.lezoherrieskola.eus) eskuratu daitezke. Hilero berritzen dira.

Kuotak:

2023/2024 ikasturterako **kuotak** Hezkuntza Sailak ezarritakoak dira:

- 4,60 euro eguneko, ohiko bazkaltiarrentzat (ikasturte osorako konpromisoa hartzen duten jankideak, gutxienez astean behin gelditzen direnak)
- 5,20 euro **eguneko**, noizbehinka gelditzen direnentzat.
- 4,60 euro **eguneko**, tarteko bazkaltiarrentzat: ikasturte osoan zehar, aste aste edo hilez hil txandaka ibiltzen direnak.

Zerbitzua 10 hilabetekoa da, irailtik ekainera. Erabiltzaile guztiek zortzi kuota ordaindu beharko dituzte, lehengo urrian eta maiatzean azkena. Kuotak hilaren lehenengo egunetan kobratuko dira banku helbideratzearen bidez.

Aurreko ikasturteko bekadunei ez zaie kuota pasatuko, familiek kontrakoa adierazten ez badute. Beka ukatuko balitzaie, atzeratutako kuotak ordaindu beharko lituzkete.

Bi kuota ez ordaintzeak jangelako zerbitzutik kanpo gelditzea dakar. Edozein zailtasunen aurrean, **jangela-arduradunarekin** lehenbailehen harremanetan jartzea komeni da.

Bazkaltiarrek dirua itzultzeko eskubidea izango dute, eskolara gutxienez aste bat jarraian etorri ez direnean eta, beti ere, abisua jangela-arduradunari jakinarazi badiote. Hutsegitearen abisua jangela-

arduradunari eta tutoreari INIKArekin edo telefono bidez jakinarazi behar zaie, haurren izen-abizenak eta ikasmaita adierazita. Kasu hauetan kitapena kuotaren % 50a izango da, hau da, janariari dagokiona. Jangelarako diru-laguntza jasotzen duten ikasleei ez zaie dirurik itzuliko.

Ikasturtean zehar norbaitek baja ematea erabakitzen bada, kuoten kitapena egingo zaio. Izena emana ez duen ikasleren batek noizbehinka jangela zerbitzua erabili behar izanez gero, jangela-arduradunarekin harremanetan jarri beharko du familiak. Kontuan izan, honelako kasuan onartu ahal izango dela administrazioak jarritako **zaintzaileen ratioa** bete arte.

Ohiko bazkaltiarrek ere erreserba egunak aldatu ahal izango dituzte **zaintzaileen ratioa** bete arte.

Haurrek bi txandatan bazkalduko dute, bazkaltiarren banaketa kopuruaren arabera izango da:

- 1. txanda: 12:30
- 2. txanda: 13:45

Jangelaren erabiltzaileek bere ordutegia 12:30-15:00 errespetatu beharko dute. Arrazoiren batengatik **erabiltzaile batek** denbora tarte horretan atera beharko balu, egun horretan jangela zerbitzuari utzi beharko lioke.

Goizean zehar eskolatik atera bada, jangela zerbitzua erabiltzeko 12:30ak baino lehen sartu behar da eskolara.

Edozein kasutan, eskolatik kanpo egiten diren ekintza osagarrietara (musika, eskola kirola) joan ahal izateko, gurasoen baimen idatzia aurkeztu behar diote jangela-arduradunari ere. Beti ere, ekintza hauetan parte hartzeko jangelako txandetan ez da aldaketarik onartuko.

HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzako haurrek izena eta zintzilikatzeko zinta dituen mantala ekarri behar dute. Ostiralero, etxera eramango dute garbitzeko eta astelehenero berriro ekarri.

HH2 eta HH3ko haurrek 13:45ean bazkaldu ondoren, ateratzeko aukera izango dute aldeztu aurretik familiarekin adostua **badago**.

HH2

- Irailean izena emango dute.
- Urriaren gelako egokitzapena bukatzean hasiko dira jangelan.
- Lehenengo hiruhilekoan lekariak eta barazkiak purean eskaintzeko aukera dago. Urtarriletik aurrera janaria osorik eskainiko zaie.
- Irteera ordutegiak:

13:45ean siesta egin gabe.

15:00etan siesta txikia edo gabe.

16:20an

- Siesta: objektu kuttuna eta txupetea ekar ditzakete. Maindirea eta manta eskolak eskaintzen ditu. Maindirea ostiralero mantalarekin batera etxera eramango du eta astelehenean berriro ekarriko du garbituta.

Aurrez aurre biltzeko ordutegia: 09:15-12:00, bulegoan

INIKArekin bidez

ZERBITZUAK: GARRAIOA

Garraio zerbitzuaz baliatzeko eskubidea eskola eraikinetik 2 km baino urutiago bizi direnek bakarrik dute. Zerbitzua doan ematen da. Autobus bakoitzak, txoferraz gain, arduradun bat dauka. Ikasleak eskolara sarrera-ordua baino lehen iristen badira, arduradunarekin egoten dira.

Altamira 2 km baino gutxiagora dagoenez, Lezoko udalak autobus zerbitzua kontratatzen du. Hau ere erabiltzaileentzat dohainik da.

Autobus zerbitzua Gaintzurizketa, Donibane eta Altamiratik ditugu.

ZERBITZUAK: GOIZ TXOKOA

Gurasoen lan ordutegiak sarrera orduarekin bat ez datozenean, irtenbidea emateko asmoz antolatu da zerbitzu hau.

Arduraduna: Nerea 685779368

- Ordutegia: 7:30etatik 9:00etara izango da
- Zerbitzu honen prezioa haur kopuruaren arabera izango da.
- Ikasturte hasieratik zerbitzua erabiltzeko aukera izango dute haurrek. Egokitzapena dela eta, 2 urteko haurrak urrian hasiko da.
- Haurrek gosalduta joan behar dute zaintzara, bertan ez baita gosaririk emango.
- Jarrera desagokiak badaude edo zerbitzua 2 hilabetetan ordaintzen ez bada, ezingo da haur zaintzarekin jarraitu. Ezinbestekoa da, aurreko urteko kuotak ordaindurik izatea, aurtengo zaintzan hasteko.
- Egun solteetan zaintza zerbitzua erabil daiteke, arduradunarekin telefonoz adostuta.

MATERIAL KUOTA

Material didaktikoaren (testu liburuak, aplikazioen lizentziak...) kobraketa 1. hiruhilekoan egingo da:

1. Zikloa	27 €
2. Zikloa	30 €
3. Zikloa	31 €

2. hiruhilekoan material kuota kobratuko zaizue:

Orokorra	75 €
Familia ugaria	50 €

Aldaketarik balego, mezu baten bidez adieraziko genizueke.

Ekintza osagarriak (irteerak...) kuotatik kanpo ordainduko dira.

Bueltatutako errezibo bakoitzari banketxeak ezarritako komisioa gehituko zaio (0,91€).

HEZIKUNTZA GURASO ELKARTEA

Hezikuntza Gurasko elkarteak, eskolako familiak ordezkatzeko dituen organoa da. Gestio organoetan eta eskolako erabakietan parte hartzea ahalbidetzen duen organoa, alegia.

Zer egiten du Guraso Elkarteak?

Ondorengo ekintzak antolatu eta kudeatzen ditu:

- Festa desberdinetan parte hartzen du, batzuetan antolakuntzan, besteetan ekintzetan lagunduz (Gabonetan, Inauterietan, Eskolako festan, ikasturte bukaerako jaialdian...)
- 20 euroko kuota pasatzen ditu urtean haur bakoitzeko. Guztiok gara Guraso Familia-Elkarteko partaide.
- Guraso elkarteak, eskolaren bitartez Inikaz bidaltzen ditu oharrak. Inika egunean edukitzea oso garrantzitsua da.

Zalantzaren bat izanez gero, hezikuntza@lezoherrieskola.eus postara idatz dezakezue.

ANIMA ZAITEZTE ETA PARTE HARTU!
DENON ARTEAN GAUZA EDERRAGOAK EGINGO DITUGU!

ESKOLA KIROLA

Arduraduna: Nora 688772057

Ekintza hau Foru Aldundiak arautzen du eta Lezoko Udaletxeak, kirol taldeek eta eskolak antolatzen dute. Izen ematea aukerazkoa bada ere, ikastetxeak ulertzen du kirola egitea, umearen heziketa orokorra eta beronen nortasunaren garapen orekatua eta bizitzarako ohitura osasungarriak bultzatzeko balio duela, horregatik parte hartzera animatzen du.

Kirol aniztasuna, kirol desberdinak ezagutzea, etorkizunari begira horien praktika sustatzea, parte hartzea eta lehiaketaren arteko oreka lortzea dira eskola kirolaren helburuetariko batzuk.

Aurrebenjaminak (LH1-LH2). Ekintza hauen helburu nagusia hasierako adin hauetan mugitzeko gaitasun orokorrak garatzea eta balore hezigarriak barneratzea da. Neska- mutilen arteko parekotasun handiagoa lortu, koordinazio eta erritmoko jardueretan esperientziak izan eta nerabezaroan kirola uztea saihestu nahi da.

Eskolan jolas kooperatiboak eskaintzen direnez eta Aldundiak dituen helburuekin bat egiten dutenez, hau izango da Lezo Herri Eskolako Eskola Kirolak aurrebenjaminentzat eskainiko duen ekintza.

Bertan parte hartzeko, Inikaz bidalitako galdetegia erantzun behar duzue.

Eskola kirolaren kuota urtean 130 eurokoa da. Kuota batean ordaindu nahi duenari azaroan kobratuko zaio helbideraketa bidez. Bi kuotetan ordaindu nahi duenari, erdia azaroan eta bestea otsailean pasako zaio. Familia ugarietarako €25eko deskontua egingo zaie, eta RGla jasotzen dutenei €75ekoa.

Jarrera negatiboak badaude, zerbitzua eteteko aukera dago. Eskola kirolean parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da aurreko urteetako ordainketak betarik edukitzea (eskola eta Guraso Elkarteak).